

PALESTINA

Mundu osoko herriek salatu dute Gazako herritarrei ezarri dieten sufrimendua

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Israelgo Armadak 2.000 palestinar inguru hil ditu azken asteotan; horietako 500 inguru, umeak. Agintariek ez dute gauza handirik egin sarraskiari eta txikizioari amaiera emateko, baina herriak bazter guztietan kalera irten dira protesta egitera, Irakeko inbasioa hasi aurretik egin ziren bakearen aldeko mobilizazio erraldoiak gogora ekarriz.

Herrien mobilizazioak egunero egin dira, baina orain astebeteko Haserre Eguna nabarmentzeko modukoa da, egun hori aukeratu baitzuten Palestinako giza mugimenduek nazioarteko protestaldia deitzeko.

Palestinarrak alde batera utzita, Latinoamerika nabarmendu da hasiera-hasieratik sarraskigileei hortzak erakusteko garaian. Herrialde horietan agintariek ere bat egin dute sarraskien salaketarekin, azken urteotako bilakaera politikoari esker AEBen morroi izateari utzi eta beste

kontinenteetako buruak baino ausartagoak baitira. Horixe nabarmendu zuen joan den asteazkenean Raid Al Malki palestinar kantzilerrak Russia Today telebistari eskainitako elkarrizketa batean.

Boliviatik sortu zen “Palestinaren alde” dokumentua, Latinoamerikako 350.000 intelektual, idazle, irakasle, abokatu, politikari, sindikalista, mediku, ikasle, nekazari eta ekintzaile baino gehiagok sinatu dutena (Evo Morales presidentearekin hasi ziren sinadurak eta Fidel Castro kubatarrek ere bat egin du idatziarekin), Israeli NBEak hartutako erabakiak bete ditzala

eta Gazatik, Zisjordaniatik eta Jerusalem hiriko ekialdetik alde egin dezala exijitzeko.

Australiako irudiak izan ziren erredakzioetara iritsi ziren lehenak, egun berria beste inor baino lehenago iristen baita bertara. Melbournen 2.000 lagun inguru elkartu ziren: Palestinako bandera ugari, bakearen aldeko mezuak, Israelen aurkakoak eta ezkerrek erabiltzen dituen ikur asko.

«EZ DAUDE BAKARRIK»

Japonian, berriz, Israelek Tokion duen enbaxadaren aurrera eraman zuten Haserre Eguneako protesta manifestariak. Beste egun batean, kandelak zeramatzatela, erlijio ezberdinetako jarraitzaileak elkartu ziren heriotzari ezetz esateko. «Palestinako herritarrek jakin behar dute ez daudela bakarrik, ez daudela mundutik apartatuta», adierazi zuten Sonoko Kawakamik.

Asiako herrialde musulmanetan oso manifestazio jendetsuak egin dira sarraskiak salatzeko, baina Haserre Egunean ez

1.- Australiako Melbourne hirian 2.000 lagun inguru elkartu ziren hilaren 9an.
Paul CROCK | AFP


2.- Japoniako manifestariak Israelek Tokion duen enbaxadaren aurrera eraman zuten Haserre Eguneako protesta.
Toshifumi KITAMURA | AFP

3.- Gazako Rafah hiriko umeek NBEren eskola baten aurrean egindako protesta.
Said KHATIB | AFP

4.- Indiako Jamiat Ulamia-I-Hind talde islamistak Israel Hitlerrekin parekatu zuen.
Manjunath KIRAN | AFP

5.- Indiako Social Unity Centre of India talde komunistak kideak, Obamaren erretratua erretzen.
Dibyangshu SARKAR | AFP





ziren nabarmendu. Iranen, Pakistanen eta Indonesian milioika lagunek salatu izan dute urteotan Israelen jokaera.


Indiatik oso irudi esanguratsuak iritsi zitzaizkigun hilaren 9an: talde islamista baten mobilizazioan, Israel Hitlerrekin parekatzen zuten; elkarte komunista baten protestaldian, berriz, Netanyahu eta Obama AEBetako presidentearen erretratuak erre zituzten. Alde ideologikoa ikaragarria izanda ere, bat egin zuten palestinarrei elkartasuna adierazteko garaian.

Asia zein Afrikako herrialde arabiarretan manifestazio ugari egin dira. Xiitak nagusi diren Bahreinen eta Libanon bezala, herritar gehienak sunitak diren Jordania eta Marokon. Baina gerrak erabat txikituta dauzkan Iraken, Libian eta Sirian ia ez da kalean protestaldirik egin, eta Egipton ere ez, ez behintzat au-

rreko urteetan ikusi izan ditugun bezain jendetsuak, bertako agintari berriek, kolpistek, manifestazio eskubidea erabat ezabatuta baitaukat.

Hegoafrikako mobilizazioak ere nabarmentzekoak dira, jendetsuak izan direlako, alde bate-tik, eta *apartheid*-aren aurkako borroka zer den beste inon baino hobeto dakitelako, bestetik. Desmond Tutu apezpiku anglikanoa eta *apartheid*-aren aurkako ekin-tzailea bertan izan zen, beste 50.000 bat herritarrekin batera, BBC telebista kateak emandako datuen arabera. Hegoafrikako herritar beltzei berrogei urtez ezarritako *apartheid* politika be-rra da Israelen palestinarrei ezarritakoa, manifestariak esan zu-tenez. Desmond Tutu berak, Nobel saria jaso duten beste 65 lagunek eta Europako Parlamen-tuko 200 diputatu baino gehia-gok Gazari ezarritako blokeoari





6.- Jordaniako Anai Musulmanek «Gazaren garaipena» ospatu zuten hilaren 8an.
Khalil MAZRAAWI | AFP

7.- Israelen aurkako mezuak, Islamabad Pakistango hiriburuko manifestazioan.
Farooq NAEEM | AFP

8.- Milaka marokoar elkartu ziren abuztuaren 3an Casablancako manifestazioan.
Fadel SENNA | AFP

9.- Bahreingo manifestari gazte bat, Gazarentzat askatasuna eskatzen.
Mohammed AL-SHAikh | AFP

10.- Palestinako bandera ugari eraman zituzten Hegoafrikako Lurmutur Hiriko manifestariak.
Rodger BOSCH | AFP

11.- Boliviako manifestariak, AEBek La Paz hiriburuan duten enbaxadaren aurrean.
Aizar RALDES | AFP

12.- Palestinako umeen sufrimendua gogoan, Caracaseko manifestazioko irudian.
Juan BARRETO | AFP

13.- Gazan ohikoak bihurtu diren umeen hiletak antzestu zituzten Santiago Txileko hiriburuan.
Martin BERNETTI | AFP

amaiera emateko eskatu dute eskutitz batean.

Europari dagokionez, Londresko mobilizazio erraldoia (GAUR8 honen azaleko irudia) nabarmendu behar da. Manifestariak Cameronen Gobernuari Tel Avivekin dituen harremanak apurtzeko exijitzen diote, batez ere arma gehiago ez saltzeko, sarraskigilearen konplize ez izateko. Stop the War koalizioak diru bilketa egin zuen Gazako herri-tarrei laguntzeko eta ordu batzuetan sei milioi euro inguru bildu zituzten.

Parisen eta frantses Estatuko makina bat hiritan, Berlinen, Hanburgon eta Madrilan ere egin ziren palestinarren aldeko mobilizazioak. Baita Euskal Herrian bertan ere.

Bolivian bezala, Argentinan, Venezuelan eta Txilen ere sarraskiaren aurkako protestak egin dituzte azken asteotan.

Eta AEBetan, Etxe Zurira bertara iritsi ziren mobilizazioak. Bertan ziren «Israeliek bere burua defenditzeko eskubidea» duela errepikatzen duten manifestariak ere, Estatu sionistaren banderak hartuta, baina ez zen istilurik izan. Gauza bera gerta-tu zen Los Angelesen ere.

Parisen, aldiz, palestinarren aldekoen eta aurkakoen arteko borrokak ere izan dira azken as-teotan. Hollanderen Gobernuak Gazaren eta Palestinaren aldeko manifestazioak debekatzea ere erabaki zuen, baina herritar as-kok kalera irtetea erabaki zuten debekuari muzin eginez.

10



11



12



13



Txibi espainolak

**Unai
Belaustegi**

Atzerritarrek askotan ulertzen ez duten jakia dira txibiak. Suposatzen dut asiarrek jaten dituzten intsektuen antzeko sentazioa sortzen dutela gure kostaldeko erroden preziatuek. Hemengook, ordea, gogotsu jaten ditugu. Edo jaten genituen behintzat, txibiak espainiaritu zizkiguten arte.

Kontua da, bizi naizen kostaldeko herri txiki honetan, kirol portu bat egin berri digutela, eta, hala, aisialdirako ontziek arrantza ontzien lekua hartu dute. Hala ere, oraindik geratzen dira potin txiki batzuk, kirol portuan amarratzeko kuota ordaintzeko gai diren gutxi batzuenak. Garai batean izandako arrantza portuaren mamua besterik ez da oraingoa. Horietako potin bat gure lagun baten familia-koa da, eta, aspaldiko partez, txibiak arrantzatzerara irtetea erabaki genuen. Goizean goizetik motxila egin, nahi adina eguzkitako krema eman, eta han bideratu genuen "Pitxame" atakobandarantz. Ni, familia arrantzale batean jaioa baina aspaldian itsasoa zapaldu gabea izanik, mugikorrarekin momentua grabatzen hasi nintzen, *guardia costera*-ko ontzi orlegi eta handi batek irteera zikindu zigun arte. Ez gintuzten geldiarazi, bandera espainiarra tente eta begi bistan generamalak, ikurrinaren gainetik, behar den bezala.

Jakinaren ganean geunden. Uda hasi zenetik ia egunero portuan guardia zibilaren eta polizia espainiarraren ontziak egoten dira sartu-irtenean dabiltzan ontziak euren bandera egoki daramatela ziurtatzeko, beste egitekorik gabe.

Garai batean, ikurrinaren azpian harrapatutako txibiak gustura asko erakusten genituen mahaietan. Orain, baina, txibiak ere espainiaritu egin dizkigute! Guk ez genuen txibi bat bera ere harrapatu, baina pare bat dozena kabraren itzuli ginen bueltan, kabra espainiarrekin! •